

Euskarazko estreinaldien inguruko datuen bigarren azterketa

2011-2021

Ikerketaren koordinatzailea: Lali Marimon
Txostenaren erredakzioa: Agus Perez, Lali Marimon



1. AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
1.1 Lan-prozesuaren xehetasun batzuk	3
1.2 Onomastika kontuak.....	4
1.3 Laginaren osaketa	4
1.4 Euskararen pisua antzezlanak kontuan hartzeko	5
1.5 Datuak eskuratzean izandako zailtasunak.....	6
2. DATUEN IRAKURKETA ATALEZ ATAL.....	7
2.1 Antzemandako estreinaldiak	7
2.2 Antzemandako konpainiak edo taldeak eta haien kontaktuak.....	8
2.3 Konpainia motak.....	9
2.4 Ikerketaren epean izandako estreinaldiak	10
2.5 Ikusleen adinaren arabera sailkapena	11
2.6 Antzerki motaren arabera sailkapena:	12
2.7 Konpainien arabera estreinaldi kopurua.....	13
2.8 Estreinaldi bakoitzak izan duen emanaldi kopurua (boloak).....	14
2.9 Testuen jatorria	15
2.10 Antzezle kopurua ikuskizun bakoitzeko.....	16
2.11 Antzezle kopuruak urtez urte.....	17
3. GENERO BANAKETA ANTZERKI-LANBIDEETAN.....	18
3.1 Genero banaketa zuzendaritzan	19
3.2 Genero banaketa egiletzan.....	20
3.3 Genero banaketa euskaratzeetan	21
3.4 Genero banaketa eszenografiaren diseinuan	22
3.5 Genero banaketa argien diseinuan	23
3.6 Genero banaketa jantzien diseinuan.....	24
3.7 Genero banaketa musika arloan	25
3.8 Genero banaketaren laburpen grafikoa	26
4. LABURPENA ETA ETORKIZUNERAKO PERSPEKTIBAK.....	27

1. SARRERA

Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen deialdi bati erantzunez, *Euskarazko estreinaldien inguruko datuen azterketa* prestatu eta 2021eko apirilean aurkeztu zen. Harrezkeroztik, ikerketa haren txostena edonorentzat eskuragarri dago EHAZEren web-orrian, eta elkarteak prestutasuna agertu du beti bertan jaso ziren datuak ikerlarien esku uzteko.

Ikerketa abiatzerakoan EHAZEK egina zuen aurreko azken hiru denboraldietako estreinaldien zerrenda, eta interesgarritzat jo zuen estreinaldi haien inguruko datu zehatza-goak eskuratzea eta haiei forma ematea. Esan bezala, beharizan hari erantzunez sortu zen orduko azterketa, baina aurreko hiru urteak hartu beharrean aurreko bostak hartu zituen, 2016-2020ko tartea (urte biak barne) kontuan hartuta.

Azterketa haren azken atalean –*Ondorioak eta etorkizunerako perspektibak*– etorkizunari begirako lau ideia hauek aipatu ziren:

- Falta diren konpainien datuak orain arteko datu-basean txertatzea
- 2016 baino lehenagoko urteetako datuak batzea (seguruenik orain baino era sinplifikatuagoan)
- 2021etik aurrerako datuak jasotzen jarraitzea
- Orain batu diren datuen beste irakurketa batzuk egin edo, haietatik tiraka, euskarazko antzerkiaren egoera sozializatzea

Txosten honekin aurkezten den ikerketak lehenengo hirurei erantzuten die, laugarrena EHAZEri berari dagokiolako, eta datozen orrietan azaltzen dira azterketaren nondik norakoak eta haren emaitzak.

1.1 Lan-prozesuaren xehetasun batzuk

Normala denez, bigarren datu-bilketa hau abiatzeko lehenengo bilketan erabilitako galde-tegi bera erabili dugu, baina, eskarmentuak gidatuta, formulario hartako arlo bat ezabatu dugu datu-basetik. Ezabaturiko arloa taldeek jasotako laguntzei zegokien –diru-laguntzak, erresidentziak egiteko erraztasunak...–, eta kendu egin dugu ikusi genuelako oso galdera deserosoa zela talde, artista edota konpainia askorentzat, hainbestearaino non jaso genituen erantzunekin ezin zen ondorio esanguratsurik atera.

Oraingo ikerketaren tartea 2011 eta 2021. urteen arteko epea hartzen du (biak barne). Horrek esan nahi du:

- Aurreko ikerketako (2016-2020) datuak osatu eta handiagotu egin direla.
- Bost urte atzeragoko tartea kontuan hartu dela.
- 2020tik ikusita, beste urte bat gehitu dela (2021a).

Oraingo ikerketaren datu-bilketa 2022ko urtarrilaren 17an itxi zen.

Lehenago bezala, Access formatuan sortu da oraingo datu-basea, programa hori ego-kiagoa delako izenekin lan egiteko, eta aukera handiagoak eskaintzen dituelako bilaketak arloz arlo egiteko. Hala ere, eta jakitun izanik erabiltzaile askok Excel programa baino ez dutela erabiltzen, beti ziurtatu dugu Access-etik Excel-erako transferibilitatea, eta ikerketa honen datuak Excel-en ere eskaintzen dira.

Bestetik, eta aurrekoan bezala, konpainientzako galdetegia edo formularioa Word formatuan prestatu zen, taula eran, edozein taldek formularioa zabaldu eta laukiak bete ahal izateko. Hala ere, talde batzuei zailegia iruditu zaie eta gutun eran edo telefonoz erantzun digute, laukiak guk bete genitzan. Dena den, oraingo ikerketarako informazio iturri nagusiak –alde handiz, gainera– geure artxiboak eta internet izan dira, taldeei bidalitako gutunak edo telefono deiak lehen ikerketan baino gutxiago izan direlako eta haietatik jasotako datuak urri-urriak izan direlako.

1.2 Onomastika kontuak

- Edozein zalantzaren aurrean BERRIAko estilo-liburuaren gomendioei jarraitu diegu datu-basea osatzerakoan.
- Artisten edo sortzaileen izen-abizenak: kasu guztietan izena eta lehen abizena bakarrik jarri dira, Arabako «de» partikula daramatenetan izan ezik: Velez de Mendizabal eta antzekoak.
- Euskal abizenak euskarazko grafiarekin idatzi dira: Perez, Sagardoi, Urzelai...
- Grafia bereziko taldeen izenak sinplifikatu dira datu-basean: En2do!* / Enbido, Antze3kiz* / Antzerkiz... Ez, ordea, txosten honetako testuetan.
- Taldeen izenetan, harridura keinua [!] eta 'teatro' bezalako izendapenak kendu egin dira: Axut, Atx (Teatroa), Dejabu (Panpin Laborategia), (Théâtre des) Chimères...

1.3 Laginaren osaketa

Aurreko ikerketako irizpideei jarraituz, laginaren eremua osatzeko ikusleen adin posible guztiak eta produktu mota hauek hartu ditugu kontuan:

- Antzerkia orokorrean (testuko antzerkia, argumentuzkoa, italiar erakoa), nahiz eta ume edo gaztetxoentzat izan (*Lur, Kaskarot, Käffka...*)
- Clown eta pailazoak
- Antzerki laburra.
- Antzerki musikatua (antzerki musikatua, musikalak, kabareta...)
- Kale-antzerkia

- Pastoralak
- Performanceak
- *Site specific* direlakoak
- Herri-antzerkia (herri edo eskualde bateko biztanleek edo kolektiboek egina)
- Irakurketa dramatizatua (performance izaerakoak barne)
- Bestelakoak (aire-antzerkia, film eszenikoa...)

Labur esanda, laginaren eremutzat jo dugu dramaturgia edota aktore-lan eszenikoa duen edozein lan, betiere euskarazko testu nahikoa baldin badu, hau da, euskara era anekdotiko soilean ez bada agertzen, hurrengo atalean *–Euskararen pisua–* azaltzen den moduan.

Esandako irizpideei jarraituz, hauek dira laginetik kanpo geratu diren produktuak:

- Hitzik gabeko antzerkia
- «Club de la comedia»-ren estiloko bakarrizketak
- Zirkua
- Txotxongiloak
- Bertsolaritza eta antzezpenaren arteko produktuak
- Antzezleak adingabeak direneko obrak

1.4 Euskararen pisua antzezanak kontuan hartzeko

Jakina denez, obra batzuetan euskaraz gain, beste hizkuntza batzuk erabiltzen dira, gaztelania edo frantsesa normalean, baina batzuetan ingelesa edo besteren bat ere bai.

Halakoetan, kontuan hartu dugu euskaraz zeukan pisua, kasu batzuetan geure kontuz baloratuz haren portzentajea, –era subjektiboan, ezinbestean– eta beste batzuetan konpainiek beraiek emandako informazioari segika. Adibide modura, hauek izan dira agertu zaizkigun kasu bakan batzuk:

De Gernika a Nueva York pasando por Berlín (esaldi solte batzuk baino ez)

Uda gau bateko ametsa (Arriagako ekoizpena, %40 inguru euskaraz)

Menditik paradisura (%50 inguru euskaraz)

Sisiforen paperak (%70 inguru euskaraz)

Ikerketa honen parte izateko irizpidea izan da gutxienez testuaren %50 euskaraz izatea. Hortik beherako portzentajeak erabilera anekdotikotzat jo dira.

1.5 Datuak eskuratzean izandako zailtasunak

Oraingo ikerketan gutun bat bidali zaie konpainiei, beren datuak eguneratu ditzaten. Gutunean erantsitako dokumentua Excel formatuan bidali zaizkie beren estreinaldiez genituen datuak, hainbat arlori begira, eta gutunean bertan eman zaizkie arlo bakoitzaren azalpenak.

Datuen irakurketan ezin izan ditugu konpainia edo talde guzti-guztiak kontuan hartu, jarraian datozen adibideekin adierazten den bezala. Lau multzotan sailkatu ditugu zailtasunak, eta jakin beharra dago multzoak ez direla elkarren baztertzailak. Horrek esan nahi du multzo batean sailkatuta egoteak ez duela esan nahi beste multzo batean edo batzuetan ere ez egotea.

A multzoa (kontakturik ez): 74 kasutan ezin izan dugu inolako kontakturik lortu, eta haietaz bakarrik dakigu lanen bat estreinatu dutela. Oro har, antzerki laburreko piezak dira eta haien berri dugu P6ko Antzerki Arina edo Lautan Hiru jaialdietan edota Gazteen Antzerki Topaketetan parte hartu dutelako.

B multzoa (ez daukagu inolako datarik): 5 kasutan ezin izan dugu batere datarik jakin. Estreinaldi urtea zehaztu ezin denez, kasuok datu-basean jasota geratu dira –esandako hutsunea bete gabe–, baina ezin izan dira konputuetan sartu, ezin dugulako ziurtatu ikerketaren epekoak diren ala ez.

C multzoa (urtea besterik ez dakigu): 150 kasutan ezin izan dugu estreinaldiaren data jakin (soilik emanaldi baten data lortu dugu). Kasu horietan emanaldiaren urtea estreinaldi urtetzat jo dugu, eta, adibidez, 2013-1-1 (edo ‘dagokion urtea’-1-1) jarri dugu datu-basean, konputatua gera dadin. Horrela izanik, laster antzemango da itxurazkoak direla eguna eta hilabetea (ez urtea), inork ez duelako estreinaldirik egiten Urteberri egunean.

D multzoa (obraren izenburua bakarrik): Zenbait kasutan obraren izenburua baino ez dakigu (taldearen izenik ere ez). Taldearen izena ez dakigunez, ikerketarako datu-basean konpainia ezezagunaren izentzat hartzen da obraren izenburua, programak balizko konpainia guztiak konputatu ditzan. Adibidez: «Lerdopina» izeneko antzezlanerako «Izenik gabea (+ Id zenbakia)» agertzen da *Konpainia* arloari dagokion laukian.


2. DATUEN IRAKURKETA ATALETZ ATAL

Oharra: Sektore-grafikoetan ehunekoan batuketa 100 baino handiagoa izan daiteke, programa grafikoak ez dituelako portzentajeen dezimalak kontuan hartzen.

2.1 Antzemandako estreinaldiak

Hasierako ikerketan (2016-2020ko tartea) 127 konpainia edo talde gehi 7 pastoral (134 guztira) antzeman ziren. Oraingo honetan –ikertutako tartea bikoitza baino handiagoa izanik– 652 estreinaldi gehi 17 pastoral antzeman ditugu. Horrek ematen digu orain iker-tutako hamaika urteetan (2011tik 2021era biak barne) **669** estreinaldi antzeman direla guztira.

Haietatik, 485 izan dira konpainia profesionalak eginak (autonomoak, kooperatibak, antzoki ekoizleak...), 117 estreinaldi talde amateurrek egin dituzte, pastoralak 17 izan dira eta, azkenik, 50 kasutan ezin izan dugu jakin profesionalak ala amateurrek ote ziren.




.....
Antzemandako estreinaldiak

2.2 Antzemandako konpainiak edo taldeak eta haien kontaktuak

Oraingo ikerketaren tartean (2011-2021, bi urteak barne) 226 konpainia edo talde gehi 17 pastoral antzeman ditugu (243 guztira, lehen ikerketakoak barne). Beraz, esan daiteke aurreko ikerketan berez bilatzen ez genuen emaitza (Euskal Herriko taldeen kontaktuen zerrenda osatzea) berretsi eta handiagotu egin dela.

Hala ere, antzemandako konpainia-kopurua ia bikoitza izan arren, 158 kontaktu baino ez ditugu lortu (aurreko ikerketan jasotako kontaktuak 107 izan ziren). Hala ere, baliteke denboran oso atzeratuta dauden kontaktu batzuek gaur egun fidagarritasuna galdu izana.



Antzemandako konpainiak eta haien kontaktuak • [Lehen ikerketa](#) • [Oraingo ikerketa](#)

OHARRA:


Estrainaldi-datarik ez: Kasu hauek ez dira konputuetan sartu.

2.3 Konpainia motak

Jasotako datuen arabera, konpainia mota hauek agertu zaizkigu:

- 1 arte eszenikoen plataforma (Artedrama)
- 2 antzoki ekoizle
- 4 kooperatiba
- 11 kolektibo
- 13 ekoizpen-etxe (= ekoiztetxe)
- 17 pastoral
- 31 autonomo
- 31 kultur elkarte edo elkarte artistiko
- 32 talde amateur
- 51 SL, SA, Sleta 'Profesionala' (ez dute besterik zehaztu)

50 kasutan ezin izan dugu taldearen izaera argitu, eta ez dira grafikoan agertzen.



.....
Konpainia motak

OHARRAK:

*AEP: Arte Eszenikoen Plataforma

**Antzoki ekoizle: Arriaga eta Antz3kiz


Pastoralen kasua berezia da, denok dakigunez, baina konpainia izaera eman diegu, oso zaila izaten delako talde sortzailearen izaera beste edozein kategoriatan sartzea.

2.4 Ikerketaren epean izandako estreinaldiak

Laginaren eremua finkatzeko irizpideen arabera, 2011tik 2021era bitarteko urteetan (biak barne) 669 estreinaldi izan dira euskaraz.

Estreinaldi kopurua urteka:

• 2011:.....	31
• 2012:.....	44
• 2013:.....	42
• 2014:.....	52
• 2015:.....	47
• 2016:.....	59
• 2017:.....	75
• 2018:.....	71
• 2019:.....	92
• 2020:.....	74
• 2021:.....	82



.....
Estreinaldi kopurua urteka

OHARRAK:

Estreinaldi-kopuru handiagoak agertu zaizkigu orain lehen ikerketako tartean (2016-2020), bigarren ikerketa honetan iturri fidagarriagoak eta datuen orrazkera zorrotzagoa egin delako.


Kasu batzuetan ezin izan dugu estreinaldiaren data zehatza jakin. Halako kasuetan honela jokatu dugu:

- Urtea eta hilabetea jakinez gero (baina eguna ez), hilabetearen lehena jarri dugu estreinaldi datatzat (adibidez, 2011-03-01).
- Estreinaldiaren urtea bera ere ez dakigunean, lan horren berri izan duguneko urtea baino ez dugu jarri (Ikus *Datuak eskuratzean izandako zailtasunak* atala, B multzoa). Izan ere, baliteke aurreko urtean edo urteetan estreinatuta izana. Hala ere, datuak konputatzerakoan emanaldi horiek estreinalditzat jo dira.

2.5 Ikusleen adinaren arabera sailkapena

Jasotako datuen arabera, kategoria eta kopuru hauek agertu zaizkigu:

- Haurrak: 139
- Nerabeak edo gaztetxoak: 25
- Helduak: 419
- Adin guztiak: 83
- Daturik ez: 3



OHARRAK:

Konpainia batzuek 'publiko familiarra' kontzeptua baliatzen dute, egiatan haur-antzerkia dena izendatzeko. Horregatik hobetsi dugu 'haur-antzerki' kontzeptua, nahiz eta emanaldi horietara, noski, gurasoak ere joaten diren.


'Adin guztiak' kategorian pastoralak, kale-antzerkia eta herri-antzerkia sartu ditugu, haietan ez delako ikusleen adina bereizten.

Hiru kasutan ezin izan dugu ikuskizunen xede-adina zehaztu.

2.6 Antzerki motaren arabera sailkapena:

Jasotako datuen arabera, kategoria eta kopuru hauek agertu zaizkigu.

- Antzerkia orokorrean (testuko antzerkia, argumentuzkoa, italiar erakoa), nahiz eta ume edo gaztetxoentzat izan (*Lur, Kaskarot, Käffka...*):493
- Clown eta pailazoak:50
- Antzerki laburra:49
- Antzerki musikatua (antzerki musikatua, musikalak, kabareta...):43
- Kale-antzerkia:31
- Pastoralak:17
- Performanceak:11
- Site specific:9
- Herri-antzerkia (herri edo eskualde bateko biztanleek edo kolektiboek egina): ..5
- Irakurketa dramatizatua (performance izaerakoak barne):5
- Bestelakoak (aire-antzerkia, film eszenikoa...):4




OHARRA:

Aurreko ikerketarekin alderatuta, hiru kategoria berri gehitu dugu ('Antzerki dokumentala', 'Site specific direlakoak' eta 'Bestelakoak').

2.7 Konpainien araberako estreinaldi kopurua

Ikerketaren epean horrela banatu dira estreinaldiak konpainien artean:

Estreinaldi kopurua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	16	17	19	29
Konpainia kopurua	111	31	18	12	10	6	8	5	4	1	2	1	1	3	1	1



Konpainien araberako estreinaldi kopurua • Estreinaldi kopurua • Konpainia kopurua

OHARRAK:

'Konpainia' kontzeptuan era guztietako taldeak bildu ditugu (pertsona bakarrek, amateurrak, ekoizpen-etxeak, antzoki ekoizleak...).

Antze3kiz delako elkarkea konpainia bakartzat jo dugu.

33 estreinalditan konpainia batek baino gehiagok hartu dute parte: koproduzioak dira, eta kasu horietan soilik lehen konpainia hartu dugu kontuan.

Koproduzioen kasuetan ez ditugu kontuan hartu Euskal Herritik kanpoko konpainiak (Pentación) ez eta antzerki munduaren parte ez direnak (Ikerfolk).

2.8 Estreinaldi bakoitzak izan duen emanaldi kopurua (boloak)

Lehendabiziko ikerketan interesgarri iruditu zitzaigun estreinaldi bakoitzak izandako bolo kopurua ikertzea, eta datu horiek orduko txostenean geratu ziren jasota.


Ordea, oraingoan ezin izan dugu arlo hau behar den moduan ikertu, urteetan atzera egin ahala gero eta zailagoa izan baita datu fidagarriak eskuratzea (interneten garapen eskasa lehen urteetan, informazio zatikatua edo oso urria, eguneratu gabeko datuak...).

2.9 Testuen jatorria

Baliteke interesgarria izatea euskaraz antzetzutako testuen jatorria jakitea, eta arlo horretan kopuru hauek agertu zaizkigu:

- Euskaraz jatorriz sortu diren obrak:286
- Beste hizkuntza batetik euskaratuak izan diren obrak: 151
- Daturik ez:232


Lehen ikerketan beste alderdi batzuk ere konputatu ziren (zenbat obrak izan duten bi bertsio, zenbat obra izan diren elebidun...), baina ikerketaren tartea handiagotzean ezin izan ditugu arlo horiek behar bezala ikertu, urteetan atzera egin ahala gero eta zailagoa izan baita horien inguruko datu fidagarriak eskuratzea.



2.10 Antzezle kopurua ikuskizun bakoitzeko


Interesgarria izan daiteke jakitea ikuskizun bakoitzeko zenbat antzezle izan diren, eta baita ere datu horien eboluzioa urteetan zehar ikustea. Jarraian aurkezten dugun grafikoa horren inguruko datu orokorrak agertzen dira, hau da, talde profesionalek eta amateurrek izandako estreinaldiak bereizi gabe. Hala ere, ikerketa osoan antzemandako 669 estreinaldietatik 58 kasutan ez dugu arlo honetako daturik lortu, eta grafikoa egitean gainontzeko 611k soilik hartu ditugu kontuan.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	≥18
P	52	167	97	69	38	23	14	7	8	3	2	4	1	2	0	2	0	0
A	0	0	2	3	7	12	11	13	6	1	11	4	2	2	0	3	3	42



2.11 Antzezle kopuruak urtez urte

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
2011	1	9	5	2	4	1			1							
2012	1	14	7	4	3	4	1			1		1				
2013	4	9	7	2	3	1	3				1					
2014	4	10	12	6	2		1									
2015		14	8	5	2	3	1	2	1							
2016	4	13	8	4	4		3		1							2
2017	7	19	9	10	3	2	3		2	1	1					
2018	5	15	8	5	4	5	1	1	1			1				
2019	12	19	9	12	3	2	1	1	2			1		1		
2020	7	19	12	11	5	3		3		1		1	1			
2021	7	26	12	8	5	2								1		



OHARRA:

Lauki hutsei hutsa dagokie, baina ez ditugu zeroak idatzi antzezle gutxiko estreinaldi metaketa bisualki argiagoa izan dadin.

3. GENERO BANAKETA ANTZERKI-LANBIDEETAN

Emakumeek antzerkian duten pisua neurtzea izan zen EHAZEren asmo nagusietariko bat lehen ikerketarako. Lehen ikerketan emakume zuzendarien kopurua neurtu genuen bakarrik –estreinaldiak kontuan hartuz (ez konpainiak)–, baina oraingo honetan arlo hauek konputatu ditugu genero banaketari dagokionez:

- Zuzendaritza
- Egiletza
- Euskaratzea
- Eszenografiaren diseinua
- Argien diseinua
- Jantzien diseinua
- Musika

OHARRAK:


Lehen bi arloetan izan ezik, beste guztietan ‘Enpresa’ kontzeptua azaltzen da, askotan konpainiak nahiago delako enpresa bati arlo bat edo batzuk enkargatzea.

Grafikoak egitean kendu egin dugu ‘Daturik ez’ arloa, bestela asko desitxuratzen zelako proportzioen interpretazioa. Hala ere, grafikoaren alboko zutabetxoan agertzen da daturik lortu ez dugun kasu-kopurua.

3.1 Genero banaketa zuzendaritzan

Jasotako datuen arabera, honela banatzen dira egileak generoari begira:


- Emakumeak: 211
- Gizonak: 271
- Kolektiboa: 64
- Mistoa: 51
- Daturik ez: 72



3.2 Genero banaketa egiletzan

Jasotako datuen arabera, honela banatzen dira egileak generoari begira:


- Emakumeak: 105
- Gizonak: 338
- Kolektiboa: 114
- Mistoa: 40
- Daturik ez: 72



3.3 Genero banaketa euskaratzeetan

Jasotako datuen arabera, honela banatzen dira itzultzaileak generoari begira:


- Emakumeak: 69
- Gizonak:..... 68
- Kolektiboa: 4
- Mistoa: 9
- Enpresa bat: 1
- Daturik ez: 232



3.4 Genero banaketa eszenografiaren diseinuan

Jasotako datuen arabera, generoari begira honela banatzen dira eszenografiaz arduratzen diren diseinugileak:


- Emakumeak:..... 58
- Gizonak:..... 132
- Kolektiboa:..... 137
- Mistoa:..... 23
- Enpresa: 24
- Daturik ez:..... 295



3.5 Genero banaketa argien diseinuan

Jasotako datuen arabera, generoari begira honela banatzen dira argiztapenaz ardurazten diren diseinugileak:


- Emakumeak: 33
- Gizonak: 225
- Kolektiboa: 42
- Mistoa: 2
- Enpresa: 36
- Daturik ez: 331



3.6 Genero banaketa jantzien diseinuan

Jasotako datuen arabera, generoari begira honela banatzen dira jantziez arduratzen diren diseinugileak:


- Emakumeak: 188
- Gizonak: 39
- Kolektiboa: 108
- Mistoa: 4
- Enpresa: 47
- Daturik ez: 283



3.7 Genero banaketa musika arloan


Jasotako datuen arabera, generoari begira honela banatzen dira musikaz arduratzen diren artistak:

- Emakumeak: 24
- Gizonak: 198
- Kolektiboa: 53
- Mistoa: 10
- Enpresa: 32
- Daturik ez: 352



3.8 Genero banaketan laburpen grafikoa

Ondoko grafikoan laburbildu ditugu genero kontuetan ikertutako arloak. Kontuan izan lehen bi zutabeetan ('Zuzendaritza' eta 'Egiletza' arloetan) lau kategorია baino ez direla, eta gainontzekoetan bost direla, 'Enpresa' kategoría gehituta.



Genero banaketan laburpen grafikoa • Emakumeak • Gizonak • Kolektiboa • Mistoa • Enpresa

4. LABURPENA ETA ETORKIZUNERAKO PERSPEKTIBAK

Aurreko ikerketari jarraipena emanez, hasierako tarteari (2016-2020koa, bi urteak barne) bost urte gehitu zaizkio denboran atzera eginez eta beste bat aurrera eginez. Era horretan, oraingo ikerketak 2011-2021eko tartea hartu du kontuan.

Hala ere, oraingo ikerketa ez da aurrekoaren luzapen soila izan. Izan ere, hasierako tar-teko datu asko eguneratu eta beste batzuk gehitu egin dira oraingoan, 2011-2015ekoak eta 2021ekoak jasotzeaz gain.

Oraingo ikerketak dakarren berrikuntza nagusia ikertutako arloetan datza, aurrekoan kontuan hartu ez ziren arlo batzuk aztertu direlako orain. Nagusiki –baina ez bakarrik– arte eszenikoetako zenbait lanbidetan ematen den genero banaketa ikertu da arloz arlo, agerian utziz ogibide batzuetan dagoen feminizazioa edo maskulinizazioa.

Aurrekoan bezala, berez bilatzen ez genuen emaitza eskuratu da oraingoan ere, talde edo konpainia askoren kontaktuak lortu direlako, horrela osatuz EHAZEK lehen ikerketan lortu zuen kontaktu zerrenda.

Etorkizunari begira, 2011a baino lehenagoko estreinaldien datuak EHAZEren datu-basean txertatzen jarraitzeko asmoa dugu, geure artxiboetan arakaturik eta, ahal dela, interneteko datuekin osatuz. Era berean, gure asmoa da hemendik aurrera ager daitezkeen estreinaldien xehetasunak datu-basean txertatzen jarraitzea, 2021eko estreinaldiekin egin dugun bezala, baina haien inguruko txosten berririk sortu gabe, momentuz behintzat.

Beti ere aurrera begira, beste informazio mota batzuk atera litezke datuen irakurketatik. Adibidez, estreinaldi-lekuen banaketa eta kopuruak, jaialdiek eta topaketek estreinaldi kopuruetan duten pisua, konpainien iraupena sortze eta desagertze data kontuan izanda... Eta beste ikerketa ildo bat izan liteke orain eskuratu ezin izan diren datuak nonbaitetik lortzea eta datu-basean txertatzea.

Bestetik, eta jakitun izanik honako hau datuen azterketa eta aurkezpena besterik ez dela, garrantzitsutzat jotzen dugu haien inguruko analisiak edo gogoetak egitea. Atea zabalik dago esandako arloetan ikertu nahi dutenentzat.



**EUSKARAZKO ESTREINALDIEN INGURUKO
DATUEN BIGARREN AZTERKETA**

2011-2021

**EHAZE-Antzerkizale elkarte
Agus Perez, Lali Marimon**

info@ehaze.eus